

**“UNIVERSITÀ PONTIFICIA SALESIANA” (UPS)
DON BOSCOREN UNIBERTSITATEA ETA GAZTEAK
GOTZAINEN SINODOAREN XV BATZAR
NAGUSIAREN BEZPERETAN**

Aspalditxu izan arren, Erromako Unibertsitate horretan egin nituan neure ikasketak, –80ko hamarkadan–, eta esker oneko izan gura dot, berari zor deusadan guztia zeozelan ordaintzeko, nahiz eta zor handi hori sekula kitutzea amestu be ezin egin neikean.

Aurton, gainera, urrian hatan be, ospatuko da Gotzainen Sinodoaren XV Batzar Nagusia, eta hurrengo hauxe izango dau aztergai garrantzizkoena: “Gazteak, fedea eta bokazino bereizketa”. UPSeko errektoreak, D. Mauro Mantovanik, adierazo dauzan gogoeta batzuk aintzat hartuz egiten dot neure gogoeta.

Frantzisko Aita Santuak ezin eikean hobeto aukeratu aztergai hoberik gure unibertsitatea (UPS) irakaskuntza alkarte eta erakunde modura biziago astintzeko, eta heziketa arazoaz eta gazteen munduaz azterketa, ikerketa eta formakuntza eta kultura proposamenak egitera ausartu eta tematu daiten eta eginahalak egin dagizan.

Gazteei buruzko Sinodoaren iragarpenak “aurrerengo lefroan” jartzen gaitu –dinoe UPSetik– eta pozez onartzen dogun benetako mesede eskergarri modura jasotzen dogu. Zelan lagun egin gazteei heldutasunerako euren bizitza bidean? Zelan bultzatu eta bideratu bereizketa prozesua, euren bizi proiektua aurkitu dagien eta pozik eta gogotsu zertu eta gauzatu dagien, Jainkoagaz eta gizon-emakumeakaz bat egiteko buru-bihotzak edegiz, eta gizartearen garapenean eta Eleizaren eraikuntzan arduraz parte hartuz?

Gure Unibertsitateko sei Fakultadeei erronka astuna eta eragingarria heldu jaku, “batera lan egitera” bultzatuz, osoko ikuspegi sakona eta zabala eskeini ahal izateko, ikuspuntu guztiakaz aberastuta: teologiko, juridiko, humanistiko, komunizazio eta pedagogía munduko alde guztiak aztertuz.

Gure unibertsitatearen apartekotasuna seinatzeko sarri esan ohi dogu: “UPS, Don Boscoren Unibertsitatea gazteenzat”. Esaldi hau ez dogu ulertu behar bakarrik irakaskintza zerbitzuak norentzat diran, hartzaileak nortzuk diran adierazteko. Gazteak ez dira hartzaile pasibo hutsak. Partaide dira beti eta ibilbide osoan buru-belarri sartuta jokatu behar dabe. “Tzat” hori maila sakonagora doa, harako Don Boscoren “oratorioaren” kronikan esaten ebana kontuan hartuz: “Nik zuontzat ikasten dot, zuontzat lan egiten, zuontzat bizi naz, zuontzat nago prest bizia emoteko be”.

“Tzat” horrek, bada, esangura sakon eta zabala dauka. Don Boscoren unibertsitatean eginkizun astuna eta zeregin arduratsua leporatzen dau irakasleentzat, ikasleentzat eta teknika eta administrazio arloko laguntzaileentzat. Hauxe da zeregina:

Gure diziplina eta ataza guztiak landu maitasunez, ondo ezagutzeko eta gero eta gehiago eta hobeto zerbitzeko gazteen errealidadea; eta eskeini ebanjelizatzeko eta formakuntza ikuspuntuak, benetan eragileak eta eraginkorrak, Eleizaren zerbitzurako eta gizartearen mesederako, hezitzaileentzat, gurasoentzat eta gazteentzat eurentzat onuragarri izan daitezkan.

Gazteen” mundu ekitaldiak” gogoan izanik, badirudi, edo holan emoten dau behintzat, Frantzisko Aita Santuagaz teoriatik praktikara pasatu gura dala, bide honetan gazteei lehenengo postua eta protagonismoa emonez.

Frantzisko Aita Santua bera izango dogu gidari eta eredu gazteentzat itxaropen arnasak, benetako esperantza bideak seinatzeko eta erakusten. Buenos Aireseko goigotzain zala, bizi-bizi bultzatzen ebazan hezitzaile katolikoak gazteen etor-

kizunean esperantza zehatz eta konkretuak begiztatu eiezan. Jorge María Bergogliok bost konbidapen egiten eutsezan hezitzaileei, oso-osoaan eurenganatu eiezan eta euren ikasleei transmitidu eiezan:

1. Barriro balioa emon adiskidetasunari eta alkar-laguntzari.
2. Ausartago izan eta sortzeko ahalmen gehiagoz jokatu.
3. Poza, gratuidadea... jaia bizi.
4. Adorazioa eta esker ona landu.
5. Jainkoaganako maitasun sakona gauzatu.

Ibilbide luze eta zorrotz hori gauzatzeko, azken baten, oso-osoko gaurkotasuna dauka Kontzilioak, Vatikanoko II.ak, gazteei zuzendutako mezuak. Horregaitik, horra hor mundu zabaleko gotzain guztien aholkua:

“Jainko honen eta beronen Seme Jesusen izenean, lurbira osora zeuon bihotzak zabaltzera aholkatzen zaituegu, zeuon senideen deia entzutera eta zeuon indarrak gartsu hareen zerbitzuan jartzera.

“Burrukatu egizue burukoikera guztien kontra. Uko egin indarkeriaren eta gorrotoaren grinei aske leku emoteari, gerra eta miseria ugariren sortzaile dira eta. Izan zaiteze bihotz zabalak, garbiak, adeitsuak, egiazaleak. Eta eratu egizue bihotz beroz zuon aurretikoena baino mundu hobea!

“Eleizak uste osoz eta maitasunez begiratzen deutsue” (1965eko abenduak 7).

Badabe hemen buru-belarri jarduteko erronka eragingarria, bai UPSek et baita hainbeste gazteri formakuntza eta gizabide betea eskuratzen lagun egin gura deutsien beste unibertsitate katoliko askok be.

Urrian ospatuko dan Sinodoak emon deiela arnasa eta bultzada euren eginkizuna behar dan moduan osotu dagien.

Lontzo Zugazaga